

# EIBAR'KO BERTSOLARI JAIA

## Lazkao'ko Iztueta txapeldun

Aspaldi genduan Eibar-ko erria bertsolari egarri. 1939-an Euskal billerak zirala ta egin zan bertsolari txapelketaren orotzapen estitsua gendun eibartarrok gogoangarri. Ta, ordua zalata noizbait eldu zan guretzako ere eguna. Euskaltzaindiak berri eskiziñi zigun bertso saio bat egitea, ez asken txapelketa nagusia lenago bezela, baña bai azken aurrekoa. Gipuzkoako azken txapelketaren aurreko onek, berarekin zituan maratillak, lelengo aldiz azalduko ziran bertan aurrez-aurre zaarrak eta gazteak, ta aldez aurretik ekarren saio bikaña izango zanaren otsa.

Azaroaren 11-rako jarri zan eguna eta orrela bete zan. Teatro Amaya goiz ta artsalde topeletaraño bete zan. Sarreak garestiegi izan ziran ta asko sentitu genuan gure gogoaren bestaldera ori gertatu bearra. Beti ikasten dira gauza berriak eta urregokoan ez al da orrelakorik gertatuko. Baña au bai, dudarik ez deguna da, igande artan ezala inor penaz gelditu, teatrua joan etziranak izan ezik. Ederki ase giñan bertsoz, eta gañera, zelako bertsoz? Jendetza ura arriturik gelditu zan ikaragarriko bertso aiekin. Espero genduan jai aldi ona izango zana, baña ez orrebesteraño. Bertsolari berriak makifa bat susto eman zuten.

Bertso saio ontatik zortzi bertsolari aukeratu bear ziran geroago. Ernani-n, Gipuzkoa-ko txapelketa nagusia jokatzeko, Iztueta «Lazkao-txiki». Lazkano-koa: Mitxelena Oyartzun-goa; Garmendia Berrobi-koa; Lazkano Aspetitkoa; Lekuona «Lexoti» Oyartzun-goa; Izaguirre «Zepais» Erretxil-goa; Egileor «Osintxu» Bergara-koa; eta, Uranga, Eibar-en bizi dan iztiartarra.

Alkaren estuko ibilli ziran lelengotik geiago: Iztueta, Mitxelena, Garmendia eta Lazkano, ta beren tartean norgeilagoketa egin bear izan zan, Eibar-ko Ayuntamientoaren kopa nori eman erabagitzeko, ta Iztuetak eraman zuan. Ogiari egindako bederatzai puntuko bertsoa eta bere burua il zuan seme bakarraren gurasaorena, gutxitan aitu izan diran bertsoak ziran. Bide ontatik jarraitzen badu, urte gutxi barru berarekin du Iztuetak Euskal-ko txapela. Denboa gutxiaren barruan ikaragarriko aurrerapena egin baitu bertsolarien mallan.

Aurrat aitzen emana zan bertsozaleeri, «Lazkao-txiki», artsalde on batean larri erabiliko zituala diran bertsolariarik onenak ere, eta orrela getatu zan. Ori gañera, «Lazkao-txiki» dala, bere burua gutxiagotzat eta txikiagotzat daukan mutilla. Onak dakarkida burua berak Donostian Errege-egunean egin zituan bertsoak, bere burua gutxituz, baña badu ziri-bertsotarako kemena ere ta orrela egin zuan bere txiki izakeraren defentza. Mujika-rekin eztabaidan ziardualarik:

Nere laguna pozikan dago zertsu datorrik gogora hau xamarra ikusizian egiten duen mejora, onek gañetik artutzen nau ta nik beiratu biar gora, pozikan ator gaurkuan beintzat txikiaguan ondora.

Nik daukatena egiya da ez nintzan azi gazterik, t'arrezkoroztik ez det aditzen txiki kontua besterik, egiz aundiya dan arek ezta beñere aundi usterik, ta aundiak ere ni baño gero ez dira lurra besterik.

Ederki jarritako bertsoak, txiki aundi gora-bera onetan guztiok gerala bustifizekoak esateko.

Ongi merezi zuan Iztuetak Eibar-ko Ayuntamientoaren kopa. Poztuko giñake Ernani-n ere beste orrenbeste suerte izango halu Gipuzkoa-ko txapeldun izan dedin.

Beste zenbait bertsolari etziran beren mallara eldu. «Zepais» ta «Lexoti» adibidez, etziran beren nortasunaren jabe izan. Izan ere, txapelketetan suertea ere bada, zergatik artsalde txar bat naikoa litzake onena ere atzean gelditze. Orregaitik, bein irabasiak eta bein galduak ezta esan nai geien edo gutxien danik. Sarritan galdu-irabasiak auziak baizik. Luzarora, geien dana nagusi. Ori dalata zenbait badira kezketan eta txapelketekin aserre, baña egia ori da, berriz ere au: luzarora, geien dana nagusi. Txapelketarik ez balitz ori bedori ere erabaki ezin, ta gañera, orrelako txapelketarik ez balitz, ez litzake izango orrenbeste zaletasan be bertsolarien alde. Nork jarri du bertsolarietarako gaurko egunean dagoan giro ederra txapelketa auek izan ezik? Nundik azaldu dira gazte berriak orrelako txapelketatik izan ezik?

Iru onenariokak etzuten parterik artu Eibar-en, baña nork galdu zuan orrekin eurak ezik? Goi xamarreko mallan daude-

ona Ernani-ra gabe gelditzea. Urrengo izango al du suerte geiago.

Lizartza-ko itsua ere larri ibilli zan. Ura ere, diferentzia gutxiagaitik bota zan atzera. Ostera, Muñoa mutikoa, ta mutikoa diot amasei urte bakarrik zituan oni, oraindik ofizioa falta du bertsoagintzarako baña bertsolari espala berarekin du eta duda gabe noizbait ezagutuko degu aurrenenguen artean. Gaizak ere etziran bere edadekoeri jartzeko asmatuak eta orrek ere bere buruantzako kaltea ekarren. Berak eta Lizasok, bereri tokatutako gaietan etzuan izan suerterik, ta orrek ere asko jokatzan du egun bateko saioan. Orregaitik, len esan bezela, egun baten bakarrik ezin litzazke probatu bertsolariak. Baña, gaur gaurkoz beste erarik ezta.

Len aipatutako Errege-egun ortan Iztuetak berak ere etzuan izan suerte aundirik. Lenengo aldiz ere bazan txapelketa batera presentatzen zana eta orrek ere asko egiten du. Ta ez zan gaitzi ere lenengo lauren barruan hartzea. Ara Iztueta-ren beste umorezko bertso batzuek egun ortan Mujika-ri jarriak. Iztueta zan sekula praille izan ez zana eta Mujika praille izana baña konbentutik ertendakoa: Iztueta «Lazkao-txiki» zion:

Nere lagun au atera gabe zu or zabilta elizan, andik kanpora ikusten degu zer itxuretan zabilzitan, nere iritzi indultzeririk ez dezu emengo bizitzan, itxuragaitik joate ezkeroz obe zenduke ez izan.

Nere laguna, badoakizu lenokuren ordaña, egin zoen aittatu arte larri izan zera baña, oni etzayo nunbait gustatu fraillen regla tamaña, andik baldu dutenerako au ez da kristau bikaña.

Onak edozein enpaitzen du bere izketa otxanaz, bañan guztiok badakizute no'akua degun famaz, bolara batez ibilliya da au're jantziya sonatuz, arrezkeroztik atzian ditu Luzifer eta Satanas.

Asmakizun oiek neurtzen dute ainbat onduen Iztuetak duan bertsoagintzarako doaña. Ala ere, ba zirudian bere gogoa etzuela guztiz betetzen bere bertso auek, ta bertsolari ber-berak azkeneldian jarri zituan beste auek. Lau puntu eman da bertsoa osatu bear zuan. Puntu oiek ziran: *umilla, debilla, abilla, illa*.

Gaurkuan etorri naitz bastante debilla, lenago ere ez naitz izandu abilla, burun memori txarra ta biotza illa, konforme ez dagona or konpon dedilla.

Bertso auek «Auspoa» liburu txortak argitaratu zituan, Errege-egun artan egin ziran gañerakoekin batera. Ta argi ta garbi azaltzen da bertan «Lazkao-txiki»-ren nortasuna bertsolari bezela.

Juan San Martín.



lako ez dute parte artu nai zer galduari begira, ta geiago gaitzen daude parterik artu ezta. Gazte berriak aurreratuko dira fama artuz. Gañera, txapelketetarako ere oitura bear da ta oitura ori jardunak dakar. Beste alde batetik, gaur, gure euskera gaixoi arnas apur bat ematen dio bertsolariak ta giro oberik inoiz balitz, seguru nago eurak izango litzakezela gure erriaren jairik onenak eta jatorrenak antolatzeko gauza.

Presentatzen ez diran oiek, ez uste gañera orren bikafiak diranik. Geien danak zeren beldur izan bear du? Or daukagu «Basarri», beste oiek baño zer galdu geiagokin beti tinko bere ordenan. Esanak esan, ez dot uste gaurko egunean beste gizon bat danik berak beste eman diona gura izkuntzari ta gure erriaren bestelango oitura zaar guztieri. Bera bezelako dose-nerdi bat gizon bagenezka, gure nortasunentzat beste gar bat nabariko litzake.

Baña, goazen geure arira. Eibar-en eliminatuak gelditu ziranen tartean, Errenderi-ko Lizaso gelditu zan. Nerbloak ez zeuzkan bere tokian ta bere burua menderatzen zuten. Penagarri orren bertsolari gazte eta